Código de validación/*Balidazio kodea*
63096R1Z2U042Q1Q13B4

**ASUNTO/*GAIA***

| |
|---|
| Propuesta de resolución de modificación de las bases de subvenciones a empresas ubicadas en Izarra Centre /*Izarra Centre-en dauden enpresei zuzendutako dirulaguntzen oinarrien ebazpen proposamena.* |

| | | |
|---|---|---|
| Comisión Informativa de Asuntos Generales-Pleno | | |

**PROPUESTA DE RESOLUCIÓN/*PROPOSATUTAKO EBAZPENA***

*“1. Izarra Centren kokatzen diren eta Ermuko enpresa-ehuna bultzatu eta/edo dibertsifikatuko duten enpresei zuzendutako laguntzen oinarrien aldaketa, behin-behinekotasunez onestea, horretarako izapidetu den espedientean jasotakoari jarraituz.*

*Behin-behineko erabaki hori hogeita hamar lanegunez jendaurrean erakustea, iragarki-oholean iragarkia itsatsiz, eta eguneroko prentsan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz. Epe horren barruan interesdunek espedientea aztertu eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak, alegazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte.*

*3. Erreklamazio, alegazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, erabakia behinbetikoa izango da eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da testu osoa, Udalbatzarrak gai horren inguruan berariaz beste adierazpenik egin beharrik gabe”.*

***ERMUKO ENPRESA-EHUNA BULTZATU ETA/EDO DIBERTSIFIKATZEN DUTEN IZARRA CENTREN KOKATUTAKO ENPRESAK SUSTATZERA***

"1º. Aprobar provisionalmente la modificación de las “Bases por las que se regulan las ayudas dirigidas a impulsar empresas tractoras y/o diversificadoras de tejido empresarial de Ermua que se ubiquen en Izarra Centre” en los términos que constan en el expediente tramitado al efecto.

2º. Exponer al público el anterior acuerdo provisional, durante treinta días hábiles, mediante anuncio publicado en el tablón de anuncios, en la prensa diaria y en el Boletín Oficial de Bizkaia, dentro de los cuales las personas interesadas podrán examinar el expediente y presentar las reclamaciones, alegaciones o sugerencias que estimen oportunas.

3º. En el supuesto de que no se presenten reclamaciones, alegaciones o sugerencias, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo, procediéndose a la publicación íntegra de su texto en el Boletín Oficial de Bizkaia, sin necesidad de nuevo pronunciamiento expreso del Pleno de la Corporación"

**BASES POR LAS QUE SE REGULAN LAS AYUDAS DIRIGIDAS A IMPULSAR EMPRESAS TRACTORAS Y/O DIVERSIFICADORAS DE TEJIDO**

***ZUZENDUTAKO LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK***

*Sustapen ekonomikoa herri baten garapenerako funtsezko elementua da. Enpresa-proiektu berriak sortzera zuzendutako eta testuinguru ekonomiko eta sozial emankor bat sortuko duten politika eraginkorren bitartez posible da bizi-maila egokia mantendu ahal izatea ekarriko duten garapen sozial, hiri-garapen eta garapen ekonomiko sostengarriak sortzea. Lurralde bateko ehun ekonomikoak eta haren sendotasun eta lehiakortasunak sendotu egiten dute bere ingurunean, eta aurrera egiten laguntzen diote, hurrengo belaunaldien bizi-garapena eta profesionala lortzeko.*

*Ermuko Udala jakitun da udalerri batek duen ehun ekonomikoaren garrantziaz, eta, ildo horretatik, enpresa-egitura sendo, lehiakor eta moderno bat ahalbideratzeko asmoz, aspaldi hasi zen Ermuko enpresa eta pertsona ekintzaileei aguntzeko politika eraginkorrak gauzatzen. Horrela, Udalak bi lan-ildo zehaztu ditu: enpresa-ehun tradizionalaren sendotzea eta ekonomiaren dibertsifikazioa sektore berritzaile eta/edo teknologikoetarantz bultzatzea, herrian balio erantsia eta enplegua sortzeko gauza izango direnak.*

*Dibertsifikazio-estrategia honek krisi garaietan toki-garapenean eragin handia duten sektore gutxi batzuekiko edo/eta merkatuekiko menpekotasuna saihestea du helburu. Ezin dugu ahaztu gure lurraldeko ekonomia automobilgintzaren laguntzaile diren enpresa txiki edo ertainek osatzen dutela.*

**EMPRESARIAL DE ERMUA QUE SE UBIQUEN EN IZARRA CENTRE.**

La promoción económica es un elemento fundamental para el desarrollo de un municipio. Mediante las políticas activas dirigidas a crear un contexto económico y social fértil para la generación de nuevos proyectos empresariales es posible garantizar un desarrollo social, urbano y económico sostenible en el tiempo que permita mantener los niveles adecuados de calidad de vida. El tejido económico de un territorio, su fortaleza y su competitividad, lo consolida en su entorno y le permite avanzar logrando el desarrollo profesional y vital a las distintas generaciones.

El Ayuntamiento de Ermua es consciente de la importancia del tejido económico de un municipio y, en este sentido, hace mucho tiempo que lleva ejecutando políticas activas de apoyo a las empresas y personas emprendedoras de Ermua que permitan consolidar una estructura empresarial fuerte, competitiva y moderna. En esta línea, el Ayuntamiento ha apostado por dos líneas de trabajo: fortalecer el tejido empresarial tradicional e impulsar la diversificación económica hacia sectores innovadores y/o tecnológicos capaces de generar valor añadido y empleo en el municipio.

Esta estrategia de diversificación pretende evitar la dependencia económica respecto de pocos sectores económicos o mercados cuyos períodos de crisis supongan fuertes impactos en el desarrollo local. No podemos olvidar que nuestra economía local esta predominantemente formada por pequeñas o medianas empresas del sector auxiliar del automóvil.

Código de validación/*Balidazio kodea*
63096R1Z2U042Q1Q13B4

*Enpresa hauen lehiakortasuna handitzeko apustua argia da, baina beharrezkoa da beste enpresa teknologiko batzuen sorkuntza bultzatzea. Horiek, lurraldeko ekonomia dibertsifikatzeaz gain, enpresa tradizionalei gaitasun eta teknologia berriak eskainiko dizkiete.*

La apuesta por aumentar la competitividad de estas empresas es clara, pero es necesario también generar otro tipo de empresas tecnológicas que, no sólo diversifiquen la economía local, sino sirvan también para ofrecer nuevas competencias y tecnologías a la empresa tradicional.

*Testuinguru honetan, Izarra Centre balore ekonomikoa sortzeko azpiegitura legez eratu da, bai enpresa berriak sortuz, bai beste leku batzuetan kokatuta dauden enpresak erakarriz.*

En este contexto, Izarra Centre se ha constituido como una infraestructura de primer orden para generar valor económico, ya sea mediante la generación de nuevas empresas o a través de la atracción de empresas ahora ubicadas en otros sitios.

*Izarra Centre balio handiko erreminta bilakatu enpresa berritzaile eta/edo teknologiaren eremuan lan egiten duten enpresentzat da, ez bakarrik dituen instalazio aurreratuengatik, baita ere edukiera handiko banda zabalera duen zuntz optiko-sarea izateagatik, ia dena Sarean gertatzen den garai hauetan hain baliagarria dena.*

Izarra Centre es una herramienta de enorme valor para empresas innovadoras y/o del ámbito tecnológico, no sólo por sus instalaciones avanzadas, sino también por su red de fibra óptica con un ancho de banda de gran capacidad, de gran utilidad en tiempos donde casi todo ocurre en la Red.

*Testuinguru honetan, bizi dugun garai teknologiko honetan, beste lurralde batzuetan kokatutako enpresek Izarra Centrek eskaintzen duen balio erantsia ikus dezaten, beharrezko bitartekoak jartzea da egokiena. Ermura enpresa berriak etortzeak gure lurraldean enplegua sortzea ekarriko du ezinbestez, beraz, abian jartzen diren mekanismoak, baliabide publikoen eraginkortasunaren mesedetan, helburu hori lortzera bideratu behar dira.*

En este contexto, procede poner los medios adecuados para hacer visible Izarra Centre como un espacio de valor añadido para las empresas ubicadas en otros territorios que busquen competir en estos tiempos tecnológicos. La llegada a Ermua de nuevas empresas ha de implicar necesariamente la creación de empleo en nuestro territorio, por lo que aquellos mecanismos que se pongan en marcha, en aras de la eficiencia de los recursos públicos, deben ir dirigidos con especial atención a conseguir dicho objetivo.

*Laguntza horien helburua ondokoa da: deialdia egiten den urtean lehenengoz Izarra Centren kokatzen diren eta Ermuko enpresa-ehuna bultzatu eta dibertsifikatuko duten enpresak Ermura erakartzea, eta Izarrako*

Estas ayudas tienen como fin atraer empresas tractoras o diversificadoras del tejido empresarial de Ermua que se ubiquen por primera vez en Izarra Centre en el año de la convocatoria y consolidar aquellas

*haztegitik datozen enpresak sendotzea.*

*Honako diru-laguntza programa "Laguntzak eta diru-laguntzak kudeatzeko irizpideak eta prozedura arautzen dituen Ermuko Udalaren Ordenantzak", Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2018ko maiatzaren 16an argitaratuak, eraentzen du. Honako oinarrietan diru-laguntza programa honen berezitasunak jasotzen dira, aipaturiko ordenantzaren aspektu orokorrak osatzeko.*

***1. Artikulua.- Diru-laguntzaren xedea.***

*Honako oinarri hauen xedea da deialdia egin den urtean Izarra Centren lehen aldiz kokatzen diren Ermuko enpresa-ehunaren eragile edo/eta dibertsifikatzaile diren enpresentzako, edota aurreko ekitaldian diru-laguntza hau jaso dutenentzako, eta Izarra edo Izarra Centreko udal haztegietatik datozenentzako diru-laguntzen programa arautzea. Ez dute oinarri hauetan eraentzen diren laguntzak eskuratzerik izango Toki Garapen Alorraren azpiegiturak erabiltzeagatiko prezio publikoak arautzen dituen 28. Ordenantzaren esparruan kokatutako enpresek.*

***2. Artikulua.- Erakunde onauradunek bete beharko dituzten baldintzak.***

*Onuradun izango dira:*

*Deialdia egin den urtean Izarra Centren lehen aldiz kokatzen diren enpresak edo Izarra zein Izarra Centreko udal haztegietatik datozenak, eta beraien negozioa bertan finkatu nahi dutenak.*

empresas que provengan del vivero de Izarra.

El presente programa de ayudas se rige por la "Ordenanza reguladora de los criterios y procedimiento para la gestión de ayudas y subvenciones" del Ayuntamiento de Ermua, publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia el 16 de mayo de 2018. Las presentes bases recogen los aspectos específicos del programa de ayudas que complementan los aspectos generales de la mencionada ordenanza.

**Artículo 1.-Objeto de la subvención.**

Es objeto de las presentes bases regular el programa de ayudas dirigidas a empresas tractoras y/o diversificadoras del tejido empresarial de Ermua que se ubiquen en Izarra Centre por primera vez el año de la convocatoria o hayan sido beneficiarias de la subvención el ejercicio anterior y empresas que provengan de los viveros municipales de Izarra o Izarra Centre. No podrán acceder a las ayudas regidas por estas bases las empresas ubicadas en el espacio sujeto a su regulación por la ordenanza fiscal "Nº 28. Precio público por la utilización de infraestructuras del Área de Desarrollo Local".

**Artículo 2.-Requisitos que deben cumplir las entidades beneficiarias.**

Tendrán la consideración de beneficiarias:

Las empresas que se ubiquen por primera vez en el espacio de Izarra Centre durante el año de la convocatoria y empresas que provengan de los viveros municipales de Izarra o Izarra Centre y

quieran consolidar su negocio.

*Aurreko ekitaldian honako oinarrietan eraentzen diren diru-laguntzak jaso dituztenak.*

Las empresas que hayan sido beneficiarias de la subvención regida por las presentes bases el ejercicio anterior.

*Deialdi honetan jasotzen diren laguntzen onuradun izango dira, diru-laguntzak jasotzeko edo Euskal Herriko Administrazio Orokorrarekin kontratatzeko ezgaituak ez dauden zuzenbide pribatuko entitateak, edozein dela beraien egitura juridikoa.*

Podrán ser beneficiarios de las ayudas contempladas en la presente convocatoria, las entidades de derecho privado, cualquiera que sea su estructura jurídica, que no se encuentren inhabilitados para la obtención de subvenciones públicas o para contratar con la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Erakunde onuradunei laguntzak emateko eta, hala denean, ordaintzeko, "Laguntzak eta diru-laguntzak kudeatzeko irizpideak eta prozedura arautzen dituen Ermuko Udalaren Ordenantzak", 2018ko maiatzaren 16an argitaratuak, 8 artikuluan onuradun izateko jasotzen dituen baldintzak bete beharko dira.*

La concesión y, en su caso, el pago de las ayudas a las entidades beneficiarias quedarán condicionados al cumplimiento de los requisitos para obtener la condición de beneficiaria, descritos en el Artículo 8. de la "Ordenanza reguladora de los criterios y procedimiento para la gestión de ayudas y subvenciones", publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia el 16 de mayo de 2018.

***3. Artikulua.- Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak.***

**Artículo 3.- Actuaciones subvencionables.**

*Enpresek bulegotarako erabiltzen duten espazioaren alokairu-kostuak diruz lagunduko dira ondoko betekizunak betetzen badituzte:*

Se subvencionarán los costes de arrendamiento del espacio destinado a oficinas de empresas que:

*a) Deialdia egin den urtean diru-laguntzaren eskabidean deskribatutako jarduera Izarra Centreko espazioan kokatzen badute edota aurreko ekitaldian diru-laguntza hau jaso badute, eta Izarra edo Izarra Centreko udal haztegietatik etorritako enpresak izanik, beraien negozioa bertan finkatu nahi badute. Enpresa onuradunaren kontura joango dira berari dagozkion eraikinaren mantentze-kostuak eta gastu erkideak, bai eta eraikinaren barruko*

a) Ubiquen la actividad descrita en la solicitud de subvención en el espacio de Izarra Centre dentro del año de la convocatoria o hayan sido beneficiarias de la subvención el ejercicio anterior, y y empresas que provengan de los viveros municipales de Izarra o Izarra Centre y quieran consolidar su negocio, siendo por cuenta de la empresa beneficiaria los costes de mantenimiento y gastos comunes del edificio que le corresponda, así como las

*inbertsioak ere (elektrizitatea eta abar).*

inversiones interiores (electricidad, etc.).

*b) Enplegua sortuz, Ermuaren egoera sozio-ekonomikoari bultzada ematen laguntzen badute.*

b) Contribuyan al impulso socioeconómico de Ermua mediante la generación de empleo.

*c) Ermuaren ehun ekonomikoa dibertsifikatzen laguntzen badute.*

c) Ayuden a fomentar la diversificación del tejido económico de Ermua.

*d) Udalak ekonomi sustapenerako darabilen estrategiaren ildoan badaude.*

d) Se alineen con la estrategia de promoción económica municipal

*e) Izarra Centreren kudeatzaileek eskatuta, ekintzaileentzat, antolatzen diren ekintzetan (hitzaldi, jardunaldi eta abarretan) ezagutza eskain dezakeen entitate moduan parte hartzen badute.*

e) Participen en las actividades propuestas por la gestión de Izarra Centre como entidad oferente de algún conocimiento (charlas, jornadas, etc.) para personas emprendedoras.

***4. Artikulua.- Diru-laguntzaren zenbatekoa.***

**Artículo 4.-Cuantía de la subvención.**

*Diru-laguntza eskuratu ahal izateko enpresa eskatzaileak, bere eskaera ebaluatzen denean, 60 puntu lortu beharko ditu gutxienez. Diru-laguntza are handiagoa izango da zenbat eta puntu gehiago lortu, ondorengo baremoaren arabera.*

Para poder acceder a la subvención, la empresa solicitante deberá alcanzar como mínimo 60 puntos en la evaluación de su solicitud. La intensidad de la ayuda variará en función de la puntuación alcanzada, sujeta a la siguiente baremación:

*Lehen eta bigarren urtean:*

Durante el primer y segundo año:

*- 60 puntutik 80ra: Bulegotarako Izarra Centren erabiltzen dituen instalazioen urteko alokairu-kostuaren %75.*

- De 60 a 80 puntos: 75% de los costes anuales de alquiler de las instalaciones de Izarra Centre destinadas a oficinas.

*- 81 puntutik 90 puntura: Bulegotarako Izarra Centren erabiltzen dituen instalazioen urteko alokairu-kostuaren %90.*

- De 81 a 90 puntos: 90% de los costes anuales de alquiler de las instalaciones de Izarra Centre destinadas a oficinas.

*- 91 puntutik 100 puntura: Bulegotarako Izarra Centren erabiltzen dituen instalazioen urteko alokairu-kostuaren %100*

- De 91 a 100 puntos: 100% de los costes anuales de alquiler de las instalaciones de Izarra Centre destinadas a oficinas.

*Hirugarren urtean ere enpresa onuradunak laguntza eskatu ahal izango du, aurreko urtean eskuratu zuen laguntzaren %50 lortzera iristeraino. Diru-laguntzaren luzapen-eskaria Balioespen Batzordeak baloratuko du, eta horretarako eskaera beteta eta 5. artikuluaren "Diru-laguntza emateko prozedura" b) atalean "Eskabideen aurkezpena" zehazten diren dokumentuak aurkeztu beharko ditu enpresak.*

La empresa beneficiaria podrá solicitar una prórroga para un tercer año, pudiendo ser financiada con el 50% de la subvención concedida en el ejercicio precedente. La solicitud de prorroga será evaluada por la Comisión de Valoración para lo cual la empresa deberá presentar la solicitud debidamente cumplimentada junto con el resto de documentación requerida y que se detalla en el apartado "b) Presentación de solicitudes" del Artículo "5.-Procedimiento de concesión de la subvención".

*Enpresa onuradunaren kontura joango dira berari dagozkion eraikinaren mantentze-kostuak. Horiek aldakorrak izango dira urteko gastu orokorren arabera. Honako laguntzek ez dute Izarra Centreko bestelako espazio, elementu edota azpiegiturak alokatzeko balioko.*

Los costes de mantenimiento correrán a cargo de la empresa beneficiaria, siendo éstos variables en función de los gastos generales anuales. Las presentes ayudas no cubren el arrendamiento de otro tipo de espacios ni elementos e infraestructuras de Izarra Centre.

***5. Artikulua.- Diru-laguntza emateko prozedura.***

**Artículo 5.-Procedimiento de concesión de la subvención.**

*Honako diru-laguntza programaren berariazko aspektu legez ondoren ezarritakoaz gain, kontutan hartuko da 2018ko maiatzaren 16an argitaratutako "Laguntzak eta diru-laguntzak kudeatzeko irizpideak eta prozedura arautzen dituen Ordenantza"k bere bigarren kapituluan "Norgehiagokaren bidez laguntzak edo diru-laguntzak kudeatzeko prozedura"n ezarritakoa.*

Salvo lo dispuesto a continuación como aspectos específicos del presente programa de ayudas, se considerará lo establecido en el "Capítulo Segundo, Procedimiento para la gestión de ayudas o subvenciones mediante concurrencia competitiva", de la "Ordenanza reguladora de los criterios y procedimiento para la gestión de ayudas y subvenciones", publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia el 16 de mayo de 2018.

*a) Eskabideak aurkezteko epea*

*a) Plazo de presentación de solicitudes.*

*Eskabideak aurkezteko epea urte bakoitzeko deialdian ezarriko da.*

El plazo de presentación de solicitudes se establecerá en la correspondiente convocatoria anual.

*b) Eskabideen aurkezpena.*

*Eskabideak elektronikoki aurkeztuko dira, ondoren zehatutako dokumentaziorekin batera:*

*1. Deialdi honetarako berariaz sortutako eskabide-orria, erakunde eskatzailea ordezkatzeko ahala duen pertsonak sinatua.*

*2. Eskaera lehenengoz egiten bada, eskabidea sinatzen duen pertsonaren ordezkaritza ahalaren kopia digitalizatua. Hurrengo urteetan ez da ordezkaritza ahal hori aurkeztu beharrik izango.*

*3. Hurrengo hiru urteetarako enpresa-plangintza eta plangintza ekonomiko finantzarioa. Enpresa planak, ondorengo atalak bildu beharko ditu gutxienez: i) Enpresaren aurrerakinak, ii) Ematen duen edo eman nahi duen produktu edo zerbitzuaren deskribapena, iii) Helburu duen sektore/merkatuaren ezaugarriak eta joerak, iv) Egungo bezeroak eta bezero potentzialak, v) lehia, vi) Langileak eta horien profila eta hurrengo 3 urtetan lanpostu kualifikatuak sortzeko aurreikuspena, vii) Enpresaren azpiegiturak eta horien ezaugarriak, viii) Publizitate eta promoziorako enpresak duen estrategia. Enpresa-planarekin batera ekonomia eta finantza plangintza aurkeztu beharko da, ondorengo zehaztasunak ematen direla gutxienez: ix) azken ekitaldiaren emaitza-kontua eta hurrengo 3 urteetarako aurreikuspena eta ix) diru-laguntza eskatzen den urterako eta hurrengo ekitaldirako diruzaintzan daukan aurrekontua.*

b) Presentación de solicitudes.

Las solicitudes se presentarán electrónicamente, junto a la siguiente documentación necesaria:

1. Formulario de solicitud habilitado para tal efecto y firmado por la persona con poder de representación de la entidad solicitante.

2. En el caso del primer año de solicitud copia digitalizada del poder de representación de la persona firmante de la solicitud. Este poder de representación no será necesario presentar en sucesivas solicitudes, siempre y cuando no se hayan dado modificaciones en la representación.

3. Plan de empresa y plan económico – financiero para los próximos tres años. El plan de empresa deberá incluir como mínimo los siguientes apartados: i) Antecedentes de la empresa, ii) descripción del producto/servicio que presta o pretende prestar, iii) características del sector/mercado al que se dirige y sus tendencias, iv) clientes actuales y potenciales, v) competencia, vi) personas trabajadoras y sus perfiles así como las previsiones de generación de empleo cualificado para los próximos 3 años, vii) infraestructuras disponibles y sus características, viii) estrategia de publicidad y promoción. Al plan de empresa se adjuntará el plan económico financiero, incluyendo como mínimo los siguientes apartados. ix) Cuenta de resultados del último ejercicio y previsión para los próximos 3 ejercicios, x) Balance de situación del último ejercicio y previsión para los próximos 3 ejercicios y xi) Presupuesto de tesorería para el ejercicio en el que se solicita la ayuda y el siguiente ejercicio

*4. Jardueraren memoria, honako oinarrien 8. artikuluan "Laguntzak edo diru-laguntzak emateko aplikatuko diren puntuazio-irizpide orokorrak" izenekoan zehaztutako ebaluazio-irizpideei erantzuten dieten proiekturik garrantzitsuenak xehatuz.*

4. Memoria de actividad donde se detallen los proyectos más destacables que respondan a los criterios de evaluación especificados en el "Artículo 8.-Criterios generales de puntuación aplicables para el otorgamiento de las ayudas o subvenciones" de las presentes bases reguladoras.

*5. Izarra Centreko instalazioen alokairu-kontratua, Laguntza-eskabidea egiten den unean indarrean egon beharko dena.*

5. Contrato de arrendamiento de las instalaciones de Izarra Centre vigente en el momento de solicitud.

*6. Dagokion zerga administrazioarekin eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko zorrak ordainduta edukitzearen ziurtagiriak, baldin eta Ermuko Udalari ziurtagiri horiek kontsultatzeko baimenik eman ez bazaio.*

6. Certificados de estar al corriente con la Administración Tributaria correspondiente y la Tesorería General de la Seguridad Social, solo en el caso de no otorgar autorización al Ayuntamiento de Ermua para consultar dichos certificados.

*c) Eskabideen balorazioa*

*c) Valoración de solicitudes*

*Balioespen Batzordea Udalbatzarrean ordezkaritza duten alderdi politiko bakoitzeko kide batez osatua egongo da. Batzordeak txostena emango du, honako oinarrien 8. artikuluan "Laguntzak edo diru-laguntzak emateko aplikatuko diren puntuazio-irizpide orokorrak" izenekoan zehaztutako ebaluazio-irizpideei jarraituta Toki Garapen Alorreko teknikariek egingo duten ebaluazio-txostena aztertu ondoren, ebaluazioaren emaitza orokorra zehatuko duena.*

La Comisión de Valoración estará constituida por un representante de cada partido político con representación en el Pleno Municipal. La Comisión de Valoración, tras el estudio del informe de evaluación presentado por personal técnico del área de Desarrollo Local, de acuerdo con los criterios fijados en el artículo "Artículo 8.-Criterios generales de puntuación aplicables para el otorgamiento de las ayudas o subvenciones" de las presentes bases reguladoras, emitirá un informe en el que se concretará el resultado de la misma.

*Diru-laguntza, beti ere, kreditua baldin badago emango da bakar bakarrik. Urte bakoitzeko deialdian finkatuko den kreditua amaitzen denean ezingo da laguntza gehiagorik eman. Nolanahi ere, diru-laguntza eskuratzeko behar den gutxieneko puntuazioa lortu ezkero, enpresak hurrengo urteetan ere eskatu ahal izango du diru-*

La concesión de la subvención estará condicionada a la disponibilidad de crédito. Una vez agotado el crédito disponible y que se fija en la convocatoria anual no se podrá conceder más ayudas. No obstante, la empresa que haya alcanzado la puntuación mínima para acceder a la subvención podrá

*laguntza.*

solicitar la subvención en años posteriores.

***6. Artikulua.- Zein aurrekontu-aplikaziotatik ordainduko den diru-laguntza.***

*Diru-laguntza honen helbururako baliabide ekonomikoak ekitaldi bakoitzean udal aurrekontuetan horretarako ezartzen diren aurrekontu-kredituetatik etorriko dira.*

*Honako oinarri arautzaileen 3. artikuluan zehaztutako jarduketak finantzatzeko zenbatekoa, dagokion deialdiaren ebazpenean finkatuko da.*

***7. Artikulua.- Diru-laguntza gauzatzeko udal jarduketaren ildoak lortu nahi dituen emaitzak, berori ebaluatzeko adierazleak zehaztuz.***

*Honako laguntzen helburua Ermuko enpresa-ehuna bultzatu edo dibertsifikatzen duten enpresak erakartzea da eta Izarra zein Izarra Centreko haztegietatik datozen enpresak finkatzea.*

*Hori guztia herriko enpresa-ehun tradizionala sendotzeko eta ekonomiaren dibertsifikazioa bultzatzeko helburuarekin. Horrela ekonomi sektore batzuekiko mendetasunik ez edukitzea lortu nahi da, sektore nagusietan kontzentraturiko merkatu-gorabeheren onodorio larriak saihesteko asmoz.*

*Laguntza-ildo honen emaitzak ondoko adierazleen arabera neurtuko dira:*

*- Izarra Centren ezartzen den enpresa-kopurua.*

**Artículo 6.-Aplicación presupuestaria con cargo a la cual se abonará la subvención.**

Los recursos económicos destinados a la finalidad de esta ayuda procederán de los créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Municipales para cada ejercicio.

El importe destinado a financiar las actuaciones definidas en el artículo 3 de las presentes bases reguladoras se establecerá en la correspondiente resolución de convocatoria.

**Artículo 7.-Efectos pretendidos con la línea de actuación municipal en que se concreta la subvención, con expresión de los indicadores para su evaluación.**

Las presentes ayudas tienen como fin atraer empresas tractoras o diversificadoras del tejido empresarial de Ermua y consolidar aquellas empresas que provengan del vivero de Izarra e Izarra Centre.

Todo ello como medio para fortalecer el tejido empresarial tradicional e impulsar la diversificación económica del municipio. De esta forma se pretende evitar la dependencia económica respecto de algunos sectores económicos, evitando efectos dramáticos ante oscilaciones de mercado concentradas en los sectores predominantes.

Los resultados de esta línea de ayudas serán medidas en función de los siguientes indicadores:

- Nº de empresas que se establecen en Izarra Centre.

Código de validación/*Balidazio kodea*
63096R1Z2U042Q1Q13B4

*- Izarra Centren finkatzen den enpresa-kopurua.*

*- Izarra Centren kokatutako enpresetan dagoen langile-kopurua.*

*- Izarra Centren kokatutako enpresek sortutako lanpostu berri kopurua.*

***8. Artikulua. Laguntzak edo diru-laguntzak emateko aplikatuko diren puntuazio-irizpideak.***

*Balioespen Batzordeak, teknikariak aldez aurretik eginiko txostenean oinarrituta, honako irizpide hauen arabera balioetsiko ditu proiektuak:*

*a) Negozio-plangintzaren bideragarritasuna (20 puntura arte).*

*Enpresaren jarduera edo eskaintzen duen produktua eta/edo zerbitzua eta bere merkatua eta merkaturatzeko estrategia bat datozenean, eta etorkizunerantz begira enpresak bere proiektuak gauzatzeko moduko emaitzak lortzea aurreikusten badu.*

*b) Enpresak eta bere jarduerak herriko ekonomi ehunari dakarkioten balio erantsia (20 puntura arte).*

*Enpresaren jarduera Ermuko ekonomi ehunaren balio-katearekin bat datorrenean, bezero-hornitzaileen arteko lankidetza harremanak ezartzeko eta herriko enpresekin itunak egiteko bideak irekiz.*

*c) Enpresaren etorkizuna (10 puntura arte).*

- Nº de empresas consolidadas en Izarra Centre

- Nº de personas trabajadoras en empresas ubicadas en Izarra Centre.

- Creación de nuevos puestos de trabajo por parte de empresas ubicadas en Izarra Centre.

**Artículo 8.-Criterios generales de puntuación aplicables para el otorgamiento de las ayudas o subvenciones.**

La Comisión de Valoración, evaluará los proyectos aplicando los criterios de valoración siguientes sobre la base del informe técnico previo.

*a) Viabilidad del Plan de Negocio (20 puntos)*

La actividad de la empresa, producto y/o servicio que ofrece, el sector y mercado al que se dirige y su estrategia de marketing se encuentran alineadas y la empresa prevé alcanzar resultados económicos que permiten afrontar sus proyectos de futuro.

*b) Grado en el que la empresa y su actividad aporta valor añadido al tejido económico del municipio (20 puntos)*

La actividad de la empresa se alinea con la cadena de valor del tejido económico de Ermua, pudiendo establecer relaciones de colaboración cliente/proveedor y/o alianzas con las empresas del municipio.

*c) Proyección de futuro de la empresa (10 puntos)*

*Produktu eta/edo zerbitzuak eta berori zuzentzen zaion sektoreak hazteko ahalmena badu. Planteatzen diren proiektuek, duten ahalmena aprobetxatuz, lehiakideekin alderatuta abantaila bereizgarriak eskaintzen badituzte.*

*d) Enplegu kualifikatua sortzeko gaitasuna (10 puntura arte).*

*Enpresa onuradunak, bere aurreikuspenetan enplegu kualifikatua sortzeko gaitasuna jasotzen du.*

*e) Hurrengo hiru urteetarako aurreikusi den inbertsioa 10:000 eurotik gorakoa bada (10 puntura arte).*

*Modu positiboan baloratuko da enpresak, lehian jarraitzen lagunduko dioten azpiegitura, teknologia edo ikerkuntza emaitzetan inbertitzeko aurreikuspena edukitzea.*

*f) Udalak ekonomia sustatzeko dituen lehentasunezko estrategietako batean berrikuntza proiektuak garatzeko asmoa izatea (10 puntura arte).*

*Jardueraren memorian zehazten diren berrikuntza-proiektuen artean ekonomia sustatzeko udalak unean duen estrategiari erantzuten dion edo horrekin bat datorren proiekturen daukanean.*

*g) Enpresak herriko beste erakunde eta enpresa batzuekin lankidetzan proiektuak garatzeko asmoa izatea (10 puntura arte).*

*Positiboki baloratuko da enpresak herriko beste erakunde eta enpresa batzuekin lankidetzan proiektuak garatu nahi izatea, alde guztien lehiakortasuna hobetze aldera elkarri laguntzeko asmoarekin.*

El producto y/o servicio y el sector al que se dirige ofrece potencial de crecimiento. Los proyectos descritos aprovechan su potencial y permiten crear ventajas diferenciales respecto a su competencia.

*d) Capacidad de generación de empleo cualificado (10 puntos)*

La empresa beneficiaria recoge en sus previsiones la capacidad para la generación de empleo cualificado.

*e) Inversión prevista para los próximos tres años superior a 10.000 euros (10 puntos)*

Se valorará positivamente la previsión de inversión en infraestructuras, tecnología o resultados de investigación que permitan a la empresa disponer de capacidades para continuar compitiendo.

*f) Previsión para el desarrollo de proyectos de innovación en alguna de las prioridades de la estrategia de promoción económica municipal (10 puntos)*

Entre los proyectos de innovación que se detallan en la memoria de actividad se encuentra algún proyecto que responde o se alinea con la estrategia de promoción económica municipal del momento.

*g) Previsión para el desarrollo de proyectos de colaboración con entidades y empresas del municipio (10 puntos)*

Se valorará positivamente la previsión por parte de la empresa solicitante de proyectos en colaboración con entidades y empresas locales, apoyándose mutuamente para mejorar la competitividad de todas las

partes.

*h) Oinarri zientifiko eta/edo teknologikoko enpresa izatea (5 puntura arte).*

*Enpresa eskatzaileak oinarri zientifiko eta/edo teknologikoko enpresa-izaera noraino betetzen duen ebaluatuko da. Halakotzat edukiko da bere eguneroko jardueran teknologia aurreratuak modu intentsiboan garatzen edo erabiltzen dituena eta merkatu guztiz berritzailean ari dena, ikerkuntza eta garapen teknologikoa beharrezko baldintza dituela bere biziraupenerako.*

*i) Enpresaren jarduera Euskadiko espezializazio adimenduneko estrategiarekin (RIS3 Euskadi) bat etortzea (5 puntura arte).*

*Enpresaren jarduera Euskadiko espezializazio adimenduneko estrategiarekin (RIS3 Euskadi) bat badator eta lehentasunezko sektore edo merkatu-hobi batean kokatzen denean, hots, fabrikazio aurreratuan, biozientzian, energi eta lurraldean.*

*h) La condición de empresa de base científica y/o tecnológica (5 puntos)*

Se evaluará el grado en que la empresa solicitante cumple con la condición de Empresas de Base Científica y/o Tecnológica, entendiéndola como aquella que desarrolla o hace un uso intensivo de tecnologías avanzadas en su actividad cotidiana y opera en un mercado altamente innovador donde la investigación y el desarrollo tecnológico es condición necesaria para su supervivencia.

*i) Actividad de la empresa alineada con la estrategia de especialización inteligente de Euskadi (RIS3 Euskadi) (5 puntos)*

La actividad de la empresa se encuentra alineada con la estrategia de especialización inteligente de Euskadi y se encuadra en alguno de los sectores prioritarios o nichos, siendo éstos la fabricación avanzada, las biociencia, la energía y el territorio.

***9. Artikulua.- Onuradunen betebeharrak eta laguntzak itzuli beharra.***

*Laguntzak eta diru-laguntzak kudeatzeko irizpideak eta prozedura arautzen dituen Ordenantzak" bere 9. artikuluan ezarritako betebeharrez gain, ondokoak bete beharko dituzte enpresa onuradunek:*

**Artículo 9.-Obligación de los beneficiarios y reintegro de las ayudas.**

Además de las obligaciones establecidas en el artículo 9 de la "Ordenanza reguladora de los criterios y procedimiento para la gestión de ayudas y subvenciones", las empresas beneficiarias deberán cumplir con las siguientes obligaciones.

*1. Diru-laguntza eman den helburu zehatzerako erabiltzea eta Izarra Centreko azpiegituren alokairutik eratortzen diren gastuak ordaintzeko.*

1. Utilizar la subvención para el destino concreto para el que ha sido concedida y sufragar los gastos derivados del alquiler de las infraestructuras de Izarra Centre.

*2. Dirulaguntza zertarako erabili den behar bezala justifikatzea, honakoa oinarrien 10. artikuluan "Diru-laguntzen justifikazioa" atalean ezarritakoari jarraituta.*

2. Justificar debidamente el empleo que se hace de la subvención de acuerdo a lo descrito en el Artículo 10.- Justificación de las Ayudas de las presentes bases.

*3. Datuetan edota inguruabarretan aldaketarik gertatu bada instrukzio-organoari lehenbailehen jakinaraztea.*

3. Comunicar al órgano instructor, a la mayor brevedad, cualquier variación sobrevenida de los datos o circunstancias que se reflejaron en la solicitud.

*Enpresa onuradunak konpromisoa hartzen du diru-laguntza hartu duen beste ekitaldiz gehiago Izarra Centren kokatuta egoteko.*

La empresa beneficiaria de la subvención se compromete a mantener su ubicación en Izarra Centre al menos un número de ejercicios adicionales igual a los que ha sido objeto de subvención.

*Diru-laguntzaren onuradunak aurreko paragrafoan adierazitako denbora iragan baino lehen bere jarduerari laga edota Izarra Centreko bere egoitza uzten badu Ermuko Udalari jakitera eman eta konprometitutako aldia bete arte geratzen den denborako alokairuaren zenbatekoa ordaindu beharko du, onuradun izan den ekitaldi guztietan jaso duen guztirako zenbatekora arteko mugaerkin.*

Cuando el beneficiario de la subvención cese la actividad, o abandone su ubicación en Izarra Centre en un plazo inferior al reflejado en el párrafo anterior, deberá comunicarlo al Ayuntamiento de Ermua y proceder al abono de la cuantía de alquiler pendiente hasta el cumplimiento del periodo comprometido, estableciendo como límite la cuantía de subvención recibida en los diferentes ejercicios en los que ha sido beneficiario.

***10. Artikulua.- Diru-laguntzen justifikazioa.***

**Artículo 10.-Justificación de las Ayudas.**

*Entitate onuradunak laguntzarekin egindakoa justifikatu beharko du instrukzio-organoari ondoko dokumentuak aurkeztuz:*

La entidad beneficiaria queda obligada a justificar el destino dado a la ayuda mediante la aportación al órgano instructor de la siguiente documentación:

*1. Negozioaren proiektuaren edo enpresa-planaren memoria, eskabidea aurkeztu den unera arte proiektua edo plangintza noraino bete den adieraziz eta*

1. Memoria del proyecto de negocio o plan de empresa donde se describa el grado de desarrollo del proyecto o plan presentado en el momento de la solicitud. Se adjuntará

*ekonomi ekitaldia ixtean izango diren emaitza-kontua eta egoera-balantzearen aurreikuspenak aurkeztuz.*

la previsión de cierre económico del ejercicio, presentando la cuenta de resultados y el balance de situación.

*2. Espazioaren alokairuaren fakturak eta faktura horiek ordaindu izanaren froga-agiriak.*

2. Facturas relativas al alquiler del espacio y justificantes de pago de dichas facturas.

***11. Artikulua.- Aplikatuko den araubide juridikoa.***

**Artículo 11.-Régimen jurídico aplicable.**

*Diru-laguntza hauen emakida ondorengo arauek arautzen dute:*

La concesión de estas subvenciones se regula por:

*Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege orokorrak.*

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

*Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, Diru-laguntzen Lege Orokorra onesten duena.*

El Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.

*Laguntzak eta diru-laguntzak kudeatzeko irizpideak eta prozedura arautzen dituen Ermuko Udalaren Ordenantzak, 2018ko maiatzaren 16an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuak*

Ordenanza reguladora de los criterios y procedimiento para la gestión de ayudas y subvenciones del Ayuntamiento de Ermua, publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia el 16 de mayo de 2018